

HERNANIK kronika

2003 urtea
Apirilak 17
Osteguna
Alea: 747
www.kronika.net

UDAL HAUTESKUNDEAK MAIATZAREN 25EAN

Mertxe Etxeberria eta Joxan Rekondo Bildu Hernani eta EA-EAJko alkategai

■ Bildu Hernanik astearte ilun-
tzeko batzarrean erabaki zuen
kandidatua eta zerrenda eta EA-
EAJ koalizioak atzo arratsaldean
egin zuen publiko bere erabakia.

■ Mertxe Etxeberriak adierazi du
momentu honetan abertzale eta
ezkertiar guztiengen beharra dagoela
eta Bildu Hernanik oso ekipo ona
eta konpleteoa osatu duela.


■ EA-EAJk azpimarratu du ego-
era politiko konplikatua dela, eta
bere kandidaturak jende ezagu-
na, esperientzia duena eta jende
berria biltzen dituela.

MERTXE Etxeberria oraingo
Alkatea eta Joxan Rekondo
Alkate ohia izango dira Bildu
Hernanik eta EA-EAJko buru
datozen Udal Hauteskunde-
etan. Zerrendaburu izatera
zerk bultzatu dituen galdetuta,
Mertxe Etxeberriak esan du
momentu honetan abertzale eta
ezkertiar guztiengen beharra
dagoela. Joxan Rekondok
azpimarratu du datozen lau
urteetan Hernanin badagoela
zer egina eta zer gauza berri
bulztatua. Biek adierazi dute
lanerako gogoz eta ilusioz
daudela.

Bildu Hernani

Bildu Hernaniko kandidatuak
ez du azaldu berarekin batera
zerrendan zein joango diren,
baina, bere hitzetan, Bildu
Hernanik oso ekipo ona eta
konpleteoa osatu du: "lehenik
Udaletxean arituak egongo
dira eta jende berria ere bai,
eta denak ere lanerako oso
bero eta ilusionatuta gaude"
adierazi dio Bildu Hernaniko
alkate gaik Kronikari.

Epaileek Bildu Hernani
ilegalizatu ote lezaketen gal-
detuta, Mertxe Etxeberriak
adirazi du Alderdien Lege be-
rria sentitu horretan egina da-
goela eta helburua dela "Eus-
kal Herriko nortasunaren mo-
torra izan den Ezker Abertzale-
rei trabak jartzea". Hala ere,
Etxeberriak dio Madrilek itxu-
ra pixka bat zaindu nahi badu
oso zail egingo zaiola platafor-
ma elektoralak ilegalizatzea.



Mertxe Etxeberria, Bildu Hernaniko kandidatua. Joxan Rekondo EA-EAJko kandidatua.

Azkenik, Bildu Hernani
plataformak 1.400 firmatik
gora bildu ditu. Atzo zen
sinatzeko azken eguna eta
epea 15:00ak arte zela iragarri
arren, sinadurak lehenago en-
tragatu behar izan ziren eta
Udaletxera etorritako jende
askok ezin izan zuen sinadur-
arik eman. Bildu Hernanik
barkamena eskatu die guztiei.

EA-EAJko koalizioa

EA-EAJko buruak azaldu du
datozen 4 urteetan Hernanin
badagoela zer egina eta zer

gauza berri bulztatua, eta as-
mo berri horiek gauzatzeara da
bere erronka. EA-EAJko ze-
rrendako bigarrena Andoni
Amonarraz EA-Jko kidea
izango da, koalizioak Kroni-
kara bidalitako prentsa oha-
rraren arabera. Joxan Rekon-
doren esanetan, oraingo Udal
Taldeko zenbait kidek ja-
rraitu egingo dute: Jose Ramon
Lasartek, Iñaki Arrati-
belek, Iñaki Barriok, esate-
rako. EA eta EA-Jko erdibana
egin dute zerrendetako or-
dezkaritza. □

EA-EAJko koalizioak na-
barmendu du Euskal Herriak
oso momentu politiko kon-
plikatua bizi duela eta horren
urrean bere kandidaturak
jende ezaguna, esperientzia
duena eta jende berria bil-
tzen dituela.

Bukatzeko, EA-EAJko koalizioak
maiatzaren aurreneko
astean aurkeztuko dute kan-
didatura. Ekitaldi horretan,
Iñaki Galdos eta Juan Mari
Juari, EA eta EA-Jko Gi-
puzkoako buruak Hernanin
izango dira. □

GURE ETXOLA

Bizkaiara biajea apirilaren 26an

GURE Etxolak Bizkaiara bidaia
antolatu du apirilaren 26rako, da-
torren larunbata zortzi. Bidaian
Bolivar, Zenarruza, Markina eta
Lekeitio ingurua bisitatuko dituze.
Prezia 24,55 euro dira eta
interesatuak Gure Etxolatik pasa
arratsaldeko 17:00etatik aurrera
(Atzieta kalean). □

OSTEGUN SANTUA

Azken Afariko Mezak gaur herriko hiru parrokietan

GAUR Ostegun Santu Eguna da
eta arratsaldean mezak izango
dira herriko hiru parrokietan.
Ereñotzko San Antonio pa-
rokian 17:00etan da meza, Flor-
ridako Jose Langilean 19:00etan
eta Juan Bataiatzailean 20:00-
etan. Bihar, Ostiral Santu Eguna,
Gurutzbidea eta mezak izango
dira goizean, eta Pasio Ospakiz-
una arratsaldean. □

EA-EAJ

Korreoz botoa emateko informazioa

HERNANIKO EA-EAJ-k korreo
bidezko botoari buruzko infor-
mazio zerbitzuak jarriko ditu
apirilaren 22tik maiatzaren 15era.
Informazioa Alkartetxe eta Bat-
zokian astelehenetik ostiralera,
18:00etatik 19:00ak arte. Telefo-
noak: 943-330745 (Alkartetxea)
eta 943-550212 (Batzokia).

ZINEA BITERIN

Aste Santuan ez dago pelikularik

ASTE Santua dela-eta ez da peliku-
larik izango datorren asteburuan. □

OIALUME ZAR
SAGARDOTEgia
Asteartetik
larunbatera
zabalik.
943 55 29 38
OIALUME AZKOIA

ZINGI-ZANGA
Jatetxea
Eguneko menuak
Asteburuan afariak
Florida 54
Tel: 943 33 03 97
Urbietako kalea 6 - Tezkerra
URBIETA
FISIOTERAPIA
Tel.: 943 55 74 58 / 656 77 30 10
urbietafisioterapia@hotmail.com

AMEGAR
Etxe tresnak
Altzariak
Elektrogailuak
TB- Bideoak-
HI-FI-Opariak
Sukalde altzariak
Tel.: 943 55 11 25
Faxa: 943 55 16 30

CALARRETA JAIALDIA
Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak
GAUR 16:00ETATIK AURRERA
ERREMONTZE JAIALDIA:
1. partidua: Odriozola-Olazar / Matxin IV-Urrutia
2. partidua: Zeberio II-Iriarte / Altuna I-Lizaso
3. partidua: Elizalde-Etxeberri / Bereziartua-Lekunberri
4. partidua: Urretabizkaia Anaiak / Sarasua-Mendizabal



Rafael Cristobalen hitzaldian bete egin zen Biteriko ikastaro gela.

Rafael Cristobal espezialistik 0-3 urte arteko haurren seinaleei buruz hitz egin zuen

UDAL Haurreskolak antolatuta, Rafael Cristobal psikiatra eta haur hezkuntzako espezialistik hitzaldia eman zuen Biterin, 0-3 urte bitarteko umeen seinaleak ondo ulertzearen garrantziaz. Mondragon Uni-

bertsitateko irakaslearen hitzaldiak erantzun ona izan zuen eta hitzaldi aretoa bete egin zen.

Haurreskolak bi hitzaldi antolatu zituen umeen inguruan. Bigarren hitzaldian Alex Barandiaran UHEZiko irakas-

leak hezitzaleen paperari buruz hitz egin behar zuen, baina, azken unean adituak ez zuen etortzerik izan osasun arazoengatik. Hitzaldi hori aurerrantzean izango da, oraindik egunik ez badu ere. □

Mendiriz Mendik Pirineotara mendi irteera antolatu du Maiatzaren 1eko zubirako

■ Eguraldiak laguntzen badu, 3.000 metroko bi mendi igoko dituzte: Clarabide eta Bardamina ■ Izena ematea zabalik dago eta apirilaren 28an bukatuko da epea.

MENDIRIZ Mendik 4 eguneko mendi irteera antolatu du Pirineotara Maiatzaren 1eko zubirako. Eguraldiak laguntzen badu behintzat, hirumilako bi mendi igoko dituzte, Clarabide (3.020 m) eta Bardamina (3.083 m). Eguraldi txarra edo elur txarra badago, inguruko beste mendi batzuk igoko dituzte.

Bidaian, Maiatzaren 1ean aterako da Atsegindigetik goizeko 06:00etan, eta Estos-seko aterpera joko dute,

Clarabide dagoen bailarara. Clarabide ez da berez mendi zaila, baina, desnibel haundia du eta elur dezente egon liteke. Horregatik, Mendiriz Mendik dio komeni dela irteera honetan apuntatzeko mendian ibiltzen zaizkutu egotea. Hurrengo egunean, Bardamina igotzeko plana dago. Mendiriz Mendiren esanetan, mendi hori aurrekoan baino gogorrako da, luzeagoa dela-kor eta aldapa haundiagoak dituelako.

Elurretako materiala
Mendiriz Mendik Kronikari adierazi dionez, mendi irteera horretara behar-beharrezko da elurretarako materiala era-matea (kransoiak eta pioleta).

Izena emateko epea zabalik dago eta apirilaren 28an bukatuko da. Prezia, 90 euro FEFMEko federatuentzat, 120 EMFko federatuentzat eta baziak ez direnentzat 10 euro gehiago. Prezioan sartzen dira bidaia eta 3 eguneko loa, gosaria eta afaria. □

ESKOLA KIROLA ASTEBURUKO EMAITZAK



Waterpoloko jokalariak joan den larunbatean, kirolegian.

ESKOLA kiroleko partiduak izen ziren joan den asteburuan Hernanin, eta honenbestez maiatzararteko partiduak bu-

katu dira. Datozen bi asteburueta deskantsua dute Hernaniko kirolari gazteek, Aste Santuko oporrak direla-eta.

Joan den asteburuko emaitza bakarra: areto futbolean, infantiletan, Langilek 4-Auxiliadorek 5. □



Muslariak Peña Otañoko txapelketan.

Peña Otañoko mus txapelketa final laurdenetan sartu da

■ Xalaparta elkarteko mus txapelketan datorren as-teazkena arte dago zabalik izena emateko epea.


PEÑA Otañoko mus txapelketa final laurdenetan sartu da eta apirilaren 25 arte dute epea fase horretako partidak jokatzeko. Bitarte horretan, honako bikote hauak aritu dira elkarren kontra: Rekalde-Bilbao/Sagarna-Luis; Capdequi-Goikoetxea/Balantxa I-Balantxa II; Pipo-Niko/Enrike-Linter; eta Txatarra-Txi-

flo/Arruti-Sagarna.

Peña Otañok Maiatzaren 1ean egiten du elkarteko urteurren baziaria eta mus txapelketako sariak egun horretan banatuko ditu Jose Mari Odriozola lehendakariak.

Bestalde, Xalaparta elkartean ere mus txapelketa mar-txan da eta izen ematea zabalik dago, apirilaren 23 arte. □

■ ERREMONTEA



Matxin II (eskubian) Galarretan egin zitzzion agurrean, Pello Aizpururen eskutik oparia jasotzen, profesionalen izenean.

Partiduak gaur Galarretan

GAUR, osteguna, erremonteria jaialdia izango da Galarretan, arratsaldeko 16:00etan hasita. Lau partidu jokatuko dira eta tartean Lizasok jokatuko du, aurreko astean Ezkurra menpean hartu eta gero. Lizasok Altuna I-arekin jokatuko du, Zeberio II eta Iriarteren kontra. Gainerako partiduak:

Odriozola-Olazar/I/Matxin IV-Urrutia; Elizalde-J.Etxeberria/Bereziartua-A. Lekunberri; eta, Urretabizkaia anaiak/Sarasua-Mendizabal.

Bestalde, Jokin Etxabek Euskalen jokatuko du gaur: Elizalde-A. Lekunberri/Bereziartua-Etxabe, jaialdiko hirugarren partidua. □

ZERBITZUAK

■ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaingoa: 943 333288
- DYB: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Ambulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

■ FARMAZIAK

- Egunez: Bilbao-Sagastiberry Urbietako 7
☎ 943 552941
- Gauzez: De Miguel Lasarte. Nagusia 32
☎ 943 361556

IRAGARKI MERKEAK

Etxebizitza eta lokaletarako mota guztietako instalazio elektrikoak egiten dira (segurtasuna, energi aurreztea, erosotasuna,...). Deitu: 627 51 97 76
Pertsona bat behar dut etxeeko lanak egin eta umeak zaintzeko, 08:00-12:00etara eta 16:00-20:00etara. 609 76 10 85 (20:00etatik aurrera deitu).